Bestelako Xedapenak

OSASUN SAILA

971

EBAZPENA, 2009ko urtarrilaren 29koa, Osasun Plangintza eta Antolamenduko zuzendariarena, Galdakao-Usansoloko Ospitaleko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoaren osaera aldatzeko dena.

Osasun Plangintza eta Antolamenduko zuzendariaren 2006ko azaroaren 23ko Ebazpenaren bidez (urtarrilaren 15eko EHAA, 10. zenbakia), osaera-egiaztapena berritzeko baimena eman zitzaion Galdakao-Usansoloko Ospitaleko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoari.

Ospitaletik beste batzordekide bat izendatzeko komunikazioa jaso da. Beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoen kreditazioari buruz Osasun sailburuak 1994ko irailaren 28an emandako Aginduaren 3. eta 7. artikuluetan (urriaren 24ko EHAA, 202. zenbakia) eta Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 6ko 268/2001 Dekretuan (12.1.d artikulua) agintzen denarekin bat etorriz, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Ramón Saracho Rotaeche jauna, Medikuntza eta Kirurgia Orokorrean lizentziatua, Galdakaoko Ospitaleko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoko kide modura izan duen postutik kentzea.

Bigarrena.– Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik aurrera izango du eragina.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen. Beraz, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Osasun sailburuordeari edo Osasun Plangintza eta Antolamenduko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena ofizialki argitaratzen denetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko urtarrilaren 29a.

Osasun Plangintza eta Antolamenduko zuzendaria,
M.ª LUISA ARTEAGOITIA GONZÁLEZ.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE SANIDAD

971

RESOLUCIÓN de 29 de enero de 2009, de la Directora de Planificación y Ordenación Sanitaria, por la que se modifica la composición nominal del Comité Ético de Investigación Clínica del Hospital de Galdakao-Usansolo.

Mediante Resolución de 23 de noviembre de 2006, de la Directora de Planificación y Ordenación Sanitaria (BOPV n.º 10, de 15 de enero), se concede la renovación de la acreditación al Comité Ético de Investigación Clínica del Hospital de Galdakao-Usansolo.

Habiéndose recibido del Hospital comunicación de nombramiento de una nueva vocal del Comité, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 3 y 7 de la Orden de 28 de septiembre de 1994, del Consejero de Sanidad (BOPV n.º 202, de 24 de octubre), de acreditación de los Comités Éticos de Investigación Clínica en la Comunidad Autónoma del País Vasco y al Decreto 268/2001 de 6 de noviembre por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Sanidad, artículo 12.1.d),

RESUELVO:

Primero.– Cesar como vocal del Comité Ético de Investigación Clínica del Hospital de Galdakao a D. Ramón Saracho Rotaeche, Licenciado en Medicina y Cirugía General.

Segundo.– La presente Resolución surtirá efecto a partir de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra la misma, que no agota la vía administrativa, podrán los interesados formular recurso de alzada ante el Viceconsejero de Sanidad o la Directora de Planificación y Ordenación Sanitaria, en el plazo de un mes a partir de su publicación oficial.

En Vitoria-Gasteiz, a 29 de enero de 2009.

La Directora de Planificación y Ordenación Sanitaria,
M.ª LUISA ARTEAGOITIA GONZÁLEZ.